

Loro kaskasoila

1

BA AL DAKIZU
NEW YORK NOLAKOA DEN?



Bazen behin, New Yorken bizi zen loro koloretsu bat. Brown familiak ekarri zuen urrutiko herrialde batetik. Loroak munduko kolore guztiak zituen: horia, berdea, morea... Hitz batzuk esaten ere bazekien: "Egu" on, Ramon!" "Gabon, Ramon!" Izan ere, loroa txiki-txikitatik Ramon izeneko gizon batek zaindu zuen,

Baina loroari ez zitzaion New York gustatu, ez etxeak, ez euria, ezta elurra ere. Loroai belardiak eta eguzkia gustatzen zaizkie. Horregatik' gero eta tristeago zegoen. Gauero-gauero "Gabon, Ramon!" esan, eta malko bat isurtzen zuen. Ez zekien zer egin, eta egunero luma bat kentzea erabaki zuen.

Lumarik gabe geratu zenean, Brown familiak albaitariarengana eraman zuen. Albaitariak esan zien:

—Loroa bakarrik sentitzen da. Hori da bere arazoa. Ramoni deitu, eta beste loro bat bidaltzeko eskatu zioten. Handik egun batzuetara iritsi zen bigarren loroa Brown familiaren etxera. Loro kaskasoilak ezin zuen sinetsi: lagun bat zeukan alboan!

Bat-batean, loro berriak esan zuen:

—Egun on, Ramon!

Eta New Yorkekoak erantzun:

—Egun on!

Hurrengo egunean, loro kaskasoilari luma gorri bat irten zitzaion. Eta hurrengoan berdea. Eta hurrengoan urdina. Eta berriro kolorez jantzitako txori ederra izan zen.



Hilda PERERA
Cuentos para chicos y grandes
Editorial Miñón (egokitua)

1 Egia (E) ala gezurra (G)? Adierazi

- Loroa New Yorketik ekarri zuten. ____
- Gauero "Gabon, Jon!" esaten zuen. ____
- Azkenean, lagun bat lortu zuen. ____

2 Lotu esaldi bagoitza dagokion esaldiarekin.



- Triste zegoenez, egunero luma bat kentzen zuen.



- Azkenean, berriz lumak irten zitzaikion.



- Loroa New Yorkera heldu zen.



- Laguna ekarri ziotenean, poztu egin zen.

3 Norekin bizi zen loroa lehen? Eta orain?



Brown familiarekin

Lehen _____.



Ramonekin

Orain _____.

4

Osatu esaldiak aukera hauek erabilita.

gustatzen zitzaizkion

ez zitzaion gustatzen

- New York _____.
- Belardiak _____.